



ATAZA - VALDEREJO

PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



Lanaren nondik norakoak:

- Zuetako bakoitzak Valderejoko 6 izaki bizidun sailkatzeko gako dikotomiko bat prestatu behar du. Taldekide bakoitzak hauetako multzo bat aukeratu beharko du:

ANFIBIOAK eta NARRASTIAK	UGAZTUNAK
<i>Rana temporaria</i> (baso-igel gorria)	<i>Vulpes vulpes</i> (azeria)
<i>Lissotriton helveticus</i> (uhandre palmatua)	<i>Felis silvestris</i> (basakatua)
<i>Lacerta bilineata</i> (musker berdea)	<i>Pipistrellus pipistrellus</i> (Pipistrello txikia)
<i>Natrix maura</i> (suge biperakara)	<i>Martes foina</i> (lepazuria)
<i>Vipera aspis</i> (<i>aspis</i> sugegorria)	<i>Glis glis</i> (muxar grisa)
<i>Chalcides striatus</i> (eskinko hiruatzia)	<i>Capreolus capreolus</i> (orkatza)
HEGAZTIAK	ORNOGABEAK
<i>Gyps fulvus</i> (sai arrea)	<i>Elona quimperiana</i> (Quimper barraskiloa)
<i>Neophron percnopterus</i> (sai zuria)	<i>Rosalia alpina</i> (alpetar adarluzea)
<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i> (belatxinga mokogorria)	<i>Papilio machaon</i> (Makaon tximeleta)
<i>Aquila chrysaetos</i> (arrano beltza)	<i>Lucanus cervus</i> (arkanbelea)
<i>Dendrocopos major</i> (okil handia)	<i>Anax imperator</i>
<i>Cinclus cinclus</i> (ur-zozoa)	<i>Austropotamobius pallipes</i> (ibai-karramarroa)

- Amaitzean, zirriborroa taldekideei erakutsi, egokia eta ulergarria iruditzen zaien aztertuz. Azkenik, zirriborroa irakasleari erakutsi, lehen zuzenketa egin dezan.
- Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko eskema eta gorde zuen portfolio digitalean.

- Hemen dituzue zenbait pista erabil ditzakezenak:

ANFIBIOAK eta NARRASTIAK: hankarik duen ala ez, azal hezea duen (anfibioen kasua) edo ezkatatzen estalitako azal lehorra (narrastien kasua), isatsik duen ala ez eta nolakoa, gorputzaren forma eta kolorea, azal leuna edo zimurtsua, azaleko marrazkiak eta kolorea...

UGAZTUNAK: hegan egiten ote duten, adarrik ote duen eta nolakoak, letaginak agerian dituen, tamaina, muturraren luzera, buztanaren ezaugarriak, belarrien forma edo luzera, apatzik dituen ala ez...

HEGAZTIAK: Tamaina orokorra, lumajearen kolore nagusiak, mokoaren eta hanken kolorea, orban edo marrazki bereziak, mokoaren forma (kurbatua, zuzena, fina...).

ORNOGABEAK: Hegalik dituen ala ez, hanka-kopurua, elitrorik dituen ala ez (kakalardoak bezalako hegalek gogorak dira), oskolik duen, oskolaren forma, adar luzerik duen, antena luzerik duen, hegalek kolorea, hegalek tamaina, hegalek itxura, gorputzaren forma...